

Paisaia helmuga denean

Landa Turismoa

Naturalenaz gozatu

Zaratatik urruti eta
pertsonengandik
hurbil



OBJETIVOS
DE DESARROLLO
SOSTENIBLE



Turismo jasangarri eta
arduratsua baten alde

BILBAO BIZKAIA

Landa Turismoa



Txartel honekin dirua aurreztuko duzu eta errazagoa izango da Bilbao Bizkaiko egonaldia planifikatzea, bai, garraio publikoan, bai museoetarako, ikuskizunetarako eta abarretarako sarreretan, dendetan eta aisialdiko bestelako espazioetan. Eskatu Bilbao Turismoko bulegoetan. Argibide gehiago:

www.bilbaobizkaiaacard.com

2025eko Azaroa / Seigarren edizioa

Argitaratzailea: Bilbao Bizkaia be Basque

Argazkiak: Beste egile batzuk

D.L.: BI 1341-2025

Liluratu EZAGUTZEN 4 Bilbao Bizkaia, helmuga naturala Etortzeko mila arrazoi Orienta zaitezten	Zoratuko zaitu. PRAKTIKATU 10 Landa esperientziak Turismo aktiboa
Lasaitu DESKANTSATZEN 20 Enkarterri Uribe Urdaibai Lea-Artibai Durangaldea Gorbeia eta Urduña	Plazer izango duzu. DASTATU 28 Ikasi eta dastatu Halaxe egiten dira Bertako-bertakoak
Liluratuko zaizu. BISITATU 42 Xarmaz betetako lekuak	Alaitu IKUSTEN 48 Museo guztiak Landa guneko ekitaldiak Bisita gidatuak
Asmoa izango duzu. IBILI 34 7 GR-ak Ibilbide txikiak Donejakue Bidea Ibilbideak eta ibilaldiak Bide berdeak	
54 TOP LANDA TURISMOA Gozatu beharreko guztia 10 proposamenetan	
56 TURISMOAREN DEKALOGOA	
60 INFORMAZIO PRAKTIKOA Helbideak, telefono zenbakiak..dena jakin ezazun	

BILBAO BIZKAIA

Helmuga naturala

4 Landa jarduerak bizi-bizirik jarraitzen du Bizkaia osoan. Horri esker, hurbiletik ezagutuko dituzu bertako tradizioak, kultura eta gastronomia fideltasunez zaintzen dituen herri baten kultura eta nortasuna.

Gainera, landa ostatu gehienak mende bat baino gehiagoko antzintasuna duten baserrietan kokatuta daude; indar eta edertasun asko dituzten etxeak dira, eta beraiei esker, "benetako" esperientzia biziko duzue.

Eta zalantzarik gabe "primeran" hartuko zaituzte, horixe baita gure izateko modua.

BILBAO BIZKAIA


Etortzeko mila
arrazoi

6

Askoz ere orrialde gehiago beharko genituzke Bilbao Bizkaia bisitatzeko eta bere landa eskaintzaz eta baserri turismoaz disfrutatzeko arrazoi guztiak azaltzeko.

Baina badaude batzuk nortasun propio eta imita ezina duen lurralde hau hain berezia egiten dutenak. Hizkuntza, folklore ezberdina, nazioartean ospetsua den gastronomia, itsasoa eta mendia batzen diren paisaia, eta bereziki, herritar abegitsuak, gartsu daudenak beren bizimodua erakusteko.

PAISAIA



JENDEA



NORTASUNA



GASTRONOMIA



HISTORIA



ORIENTATU zaitezen



Hauxe da Bilbao Bizkaia. Itsasoak eta mendiek inguratzen dute lurralde historiko hau, eta Gipuzkoa eta Arabarekin batera Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen du.

Herri txiki eta handi askok industria iragana dute, eta ondare balio handia duten hiribildu eta hirietan ohiturek eta garaikidetasunak bizikidetzan dihardute beste inon ez bezala.

Horren guztiaren hiriburua da Bilbao, nazioartean interes handikotzat jotzen duten hiria.

Errazagoa izan dadin zuretzat, mapa hau eskualdeka dago banatuta, eta, hala, gura duzun lekua aukeratzen lagunduko dizu. Kostaldetik gertu dagoen nonbaitera joan zaitezke edo, bestela, barnealdeko haran ederretako batera.



ABENTURA zuzen-zuzenean

Hemen bazaude bertako naturaz eta jendeaz gozatu nahi duzulako da, eta ez dago ezer hoberik eskaintzen zaizkizun askotariko esperientzien bidez gozatzea baino.

Batzuk lurtarragoak dira, bizitzeko moduari itsatsita daude, eta beste esperientzia batzuetan, mendiak eta urak zuzenean lotuko zaituzte lurralde abegitsu, bizi, eta askotan, misterioitsuarekin.



LANDA ESPERIENTZIAK

zuzen-zuzenean

Leku berriak ezagutzeko modurik onena da bertako bizimoduan parte hartzea, bertako jaki tipikoak prestatzea, baserri bat bisitatzea, eta abar, azken finean, landa esperientziaren lehengaitzat natura eta ingurua hartzea.



Ezagutu baserri bat

Baserrria euskal eraikuntza tipikoa da. Belaunaldi askoko historia du eta paisaian integratzen den edertasun berezia baita ere. Bere baratzeak, animaliak...gozatu baserritar bat gehiago izateaz eta ikasi bertako hitz batzuk, oso interesgarriak dira.

Eko laborantza

Bisita itzazu fruta, barazki, ortuari eta loreak lortzeko modu ekologikoan lantzen diren baratzeak, zeinek ingurunea eta osasuna errespetatzen baitituzte. Askok urte sasoi ezberdinetan irekitzen dituzte ateak.

Irina egiteko errotak

Denbora igaro izan ez balitz bezala, errotako harriek ur-korronteen erritmora mugitzen jarraitzen dute artoa irin bihurtzeko.

Ogia egin

Eta ikasi ogia egiten irin horiekin edo beste zereal batzuekin. Gauzarik goxoa labetik atera berri den ogia da.



Egun batez artzain

Horrela benetako artzain sentituko zara. Gozatu berdeaz, ikasi gazta egiten eta bizi artzaintzako benetako profesionalekin, beti baitituzte kontatzeko milaka istorio.



Larru-lanketa tailerra

Larruari milaka forma eta erabilera ematen adituak direnek artisautza erakutsiko dizute. Ikasi zuzen-zuzenean teknika horiek eta sortu zure lehen pieza.



Pilotaren Unibertsitatea

Ezagutu zuzen-zuzenean nazioartean ezagunena den euskal kirola. Eskuz, palaz, zesta puntan...eta ahal baduzu, bizi pilotazale izatearen esperientzia egun batez. Paregabea da.



Taloak egin

Talao Euskadin antzinako garaietatik egiten den artzoko opil bat da. Sartu txorizoa, txistorra, hirugiharra edo txokolatea, gozoa nahiago baduzu.

ESKUALDE BAKOITZEKO JARDUERAK

ENKARTERRI



URIBE



URDAIBAI



LEA-ARTIBAI



GORBEIA



DURANGALDEA



A tera ezazu zure sen
abenturazalea, Kantauri itsaso
zakarra, mendi malkartsuak
eta berde paregabearekin estalitako
haranak zure zain baitaude.

TURISMO AKTIBOA

berdea edo urdina

16



Txangoak kostaldean

Hondartzak, itsaslabarrak, flysch-a... la-ia iritsi
ezinezko txokoak, baina, itsasontzitik gozatu
ahalko dituzunak.

Urdaibai

Surfean egin

Bilbao Bizkaiko kostaldea leku ezin hobea da surfean
egiteko, izan ere, nazioartean ezagunak diren
hondartzak daude bertan. Animatu probatzera eta
eman izena surf eskoletan.

17

Birding-a

Bertako hegaztiak edo hegazti migratzaileak
ikustea jarduera erlaxagarria eta ederra da.

Eskalada eta espeleologia

Hasiberriak "harrapatzen" dituen jarduera
da, etengabeko gaintitzeengatik eta haitz eta
kobazuloekin zuzenean konektatuta egoteagatik.



Xendazaletasuna

Ibilbide txiki, ertain eta handiak daude inguru naturala hurbiletik ezagutzeko, isiltasunaz goatzeko eta aire garbia arnasteko.

Ibilaldiak globoan

Sekula ere ahazten ez den esperientzia da. Paisaia zerutik, geldirik, soinurik gabe, haizeak kulunkatzen gaituela.



Ibilaldiak zaldian

Hainbat zaldi zentro daude esperientzia horretaz goatzeko, ziur "aztarna" utziko dizula.



Golfa

Kirol hori atsegin baduzu, ez utzi makilak etxean, izan ere, Bilbao Bizkaian hainbat eskola eta zelai daude golfean aritzeko.



Ibilbideak bizikletan

Bide berdeak, trenbide zaharrak eta bizikleta zaleentzako bideak zure zain daude.



Parapentea

Abenturazaleentzat ikaskuntza prozesua behar duen esperientzia da, baina, zalantzarik gabe, merezi du.



NATURAK

zure ametsak zaintzen dituenean

Ez dago zalantzarik, atseden hartzeko lekurik onena natura da, eta horretarako, Bilbao Bizkaia hainbat ostatu ditu. Bertan atseden hartu ahal izango duzue eta jabeen harrera gogoa partekatuko duzue. Noiz, nora eta zein aukeratzeari falta zaizue bakarrik. Eskualdea aukeratu besterik ez duzue.

20

21



NEKATUR
LANDA - OSTATUAK



XARMAHOTELS
HOTEL XARMAGARRIAK



EAE-KO
KANPINAK



Industria iragana eta ondarea

ENKARTERRI



22

Zugaztieta

Enkarterrin natura bizia sentitu daiteke bertako haran, mendi, itsaso eta haitzuloetan, adibidez **Pozalaguan**, munduko estalaktita eszentrikoen bildumarik handiena duenean.

Hori guztia iragan industrial nabaria duen inguruan; instalazioetan nabaria da, besteak beste XV. mendeko **Pobalgo** burdinola Muskizen, **Meatzaritzaren Museoa** Abanto-Zierbenan, Zugaztieta Trapagaranen edo **La Encartada** txapel fabrika Balmasedan. Baina ezin dugu albo batera utzi **Balmaseda** edo **Lanestosa** bezalako herrietako ondarea. Itsasora hurbilduz gero, zuen zain egongo da **La Arena** hondartza, Muskiz eta Zierbena artean.



LANDA-
OSTATUAK
ENKARTERRIN



La Reineta

URIBE

...kosta ala kosta



Barrika

23

Uribe eskualdea barnekoa eta kostaldekoa da. Hemengo herrietan historia, kultura eta gastronomia nabari dira, eta herri tradizionalak izan arren, joera berrietara irekita daude. Leku paregabea da **abentura kirolak egiteko**, bai haranetan, bai kostalde malkartsuan. Hainbat **txakolin bodega** bisitatu eta gastronomia esperientzia ahaztezinak bizi daitezke. Kostaldeko hondartzak, adibidez, **Plentziakoa** edo **Gorlizkoa**, edertasun handiko tokiak dira.

Itsas brisaren edo barneko haize garbiaren artean hautatu behar duzue.

Bakio



LANDA-
OSTATUAK
URIBEN



Itsasora zabalik URDAIBAI



Gaztelugatxeko Doniene

24

Mundaka



I kusteko eta disfrutatzeko asko duen lekua. Eskualde honetan dago Urdaibaiko estuario zoragarria, Unescok **biosfera-erreserba** gisa aitortua. Zain dituzue hegaztiak, itsasoa eta hondartza zoragarriak.

Bermeotik gertu daude **Gaztelugatxeko Doniene**, ezinbestean bisitatu behar dena, eta **Santimamiñe**, historiaurreko margoak dituen kobazuloarekin, baita ere **Mundaka** eta **Ea** kostaldeko herri apartak eta **Gernika** udalerri historikoa, bere Bakearen Museoarekin, Chillidaren eskulturekin, Europako Herrien Parkearekin, Batzar Etxearekin eta astelehenetako merkatu interesgarri eta alaiarekin; bertan, inguruko baserrietako kalitatezko produktuak erosteko aukera izango duzue.



LANDA-
OSTATUAK
URDAIBAIN

Lur eta itsaso LEA-ARTIBAI



Gizaburuaga

25

Lekeitio


E skualde hau oso euskalduna da eta itsasora begira egoteaz gain, kolore berde bizian ezkutatutako bailara ederrak zeharkatzen ditu eta ondare balio handiko herriak eta ondasunak daude, besteak beste **Lekeitioko eta Ondarroako elizak**, **Markina-Xemeingo multzoa** edo **Ziortza Bolibarko Monasterioa**.

Itsasoa maite dutenek **Lekeitioko Santa Katalinako itsasargia eta interpretazio zentroa bisitatzeko aukera izango dute**, eta oso hurbil, Mendexan, Mariarrotako Itsasaldien errota baita ere.

Noski, ez ahaztu portuetan edo baserrietan probatu dezakezuen eta eskualdeko kultura ondarearen zati garrantzitsua den itsasoko eta baratsetako gastronomia bikaina.



LANDA-
OSTATUAK
LEA-ARTIBAIN



Ondarea mendi magalean DURANGALDEA



Urkiola Anbototik

26

Aztertu eta aukeratu, ziur asmatuko duzula, eskualde honetako ostatuak baserrietan daudelako eta baserritarrek kontatzeko irrikaz egongo diren istorio eta kondaira asko dituztelako.

Beste behin ere **Anbotok eta Urkiolako Parke Naturaleko** Aramotz mendikateak babesten duten eskualdeko paisaiaren edertasunak inguratzen gaitu. Baina, herrietan interes handiko ondare artistiko eta kulturala dugu zain, adibidez Santa Maria eliza, oinetxeak, Durangoko Kurutziaga gurutzea edo Etorrioko Argiñetako nekropolia.

Parke Naturalean dagoen **Urkiolako Santutegia** erromesaldietarako lekua da, eta erromeria tradizionalak egiten dira bertan baita ere.



LANDA-
OSTATUAK
DURANGALDEAN

Urkiola



GORBEIA ETA URDUÑA

Mendi tontorretatik haranetaraino



Gorbeia

Gorbeia Euskadiren bihotz berdea da, eta mendi inguru horretan sakabanatuta daude hainbat baserri eta herri txiki. **Gorbeia Parke Naturala** erdigunea da, zalanztarik gabe, 1.480 metrora kokatutako gurutze ospetsuarekin. Gainera, eskualdeko askotariko jardueren berri emango dizuete Orozkoko Turismo Bulegoan. Ubide udalerria Bizkaiko garaiera da, eta Otxandion pagadiak eta errementari tradizioa ikusi eta ezagutu ahalko dituzue. Zeanuri eta Areatzako herriguneak eta Orozko bera, aire zabalean dagoen museo handi bat; horiei guztiei esker, Gorbeia helmuga jatorrizko eta anitza da eta ondare natural eta kultural aberatsa du.

27



LANDA-
OSTATUAK
GORBEIA ETA URDUÑAN

Orozko



IKASI ETA DASTATU

Bilbao Bizkaian egiten dugunaz harro gaude, eta gastronomiari dagokionez, are gehiago.

Horregatik erakustea gustatzen zaigu, jende guztiak gertutik ezagutu ditzan askotan artisauak diren elaborazio prozesuak. Herri honek arreta bereziarekin zaintzen ditu produktu propio naturalak edo egindakoak, eta hori beti nabari da.

Ezagutu itzazue ekoizpen zentroak edo bodegak, eta probatu produktuak "jatorrian".

HALAXE EGITEN DIRA

Elaborazioa bertatik bertara ezagutu

Kalitatezko lehengaiekin produktuak egiteko ekoizpen prozesuak **erakustea gustatzen zaigu**, horretaz guztiaz harro baikau.

Txokolateak, **antxoak** kontserbak, **sagardoa** eta **garagardoa** nola egiten diren ezagutu dezakezue, fase guztiak hurbiletik ikusteko eta dastatzeko.

Txakolindegietan bisita gidatuak egin daitezke, eta batzuetan, aurretik erreserba eginda, jateko aukera ere badago; esperientzia zoragarria da.

**JARDUERA
GASTRONOMIKOAK
ETA ENOTURISMOA**



BERTOKOAK

Bilbao Bizkaiak kalitate hobereneko eta hurbileko hainbat gastronomia produktu eskaintzen dizkizu, eta askotan, gure gastronomia bikainaren oinarria dira.

BARATZEA

Baratzean hazten ditugu tomateak, lekak, porruak, lekaleak, letxugak, eta abar, eta askok eta askok Eusko Label edo Euskalbaserri kalitate ziurtagiria dute.

Enkarterriko Zallako tipula moreak edo Gernikako piperrak oso ezagunak dira. Eta lekaleez ari garenean, ez dago sakramentuekin prestatutako babarrunak baino hobeagorik.

PINTXOAK

Taberna askotan aurkituko duzun gastronomia aberatsaren gutizia txikiak dira.

Zaila izango da bakar bat aukeratzea.

LURREKOAK

Bilbao Bizkaiako gastronomia eta "txuletoi on bat" elkarrri lotuta daude. Haragi gorri hori, gutxi prestatua, jatetxe, sagardotegi eta erretegiako txingarretan egiten dutena eta mahaiaeren erdian partekatzen dena.

BILBAO BIZKAI

ITSASOKOAK

Antxoak, txipiroiak, bisiguak, hegaluzea eta denboraldiko atuna, eta bereziki, bakailaoa, askotariko moduetan prestatzen dena: pil-pilean, bizkaitar erara, ajoarriero edo klub ranero erara; guztiak ere errezeta zoragarriak dira eta urteak eta urteak daramatzate gurean, eta zaila da beste leku batzuetan kalitate berarekin aurkitzea.

GOZOAK

Askotariko gozoak proba ditzakezu, adibidez euskal pastelak, gurinezko opilak edo arrozeko pastelak, errusiarak, jesuitak, edo karolina ospetsuak. Oso ezagunak dira eta leku batean errotuta daude Gernikako ori-baltzak, Markinako kokoteak, Bilboko trufak edo Urduñako gurin opilak. Gabonetan sokonusko turroia, eta eztarria gozotzeko malba gozokiak.

GAZTAK

Nagusiki Idiazabal jatorri izendapena dute eta bi motakoak dira, ketua eta ketu gabea. Ardi latxen edo Karrantzako ardien esnearekin egiten den gazta da, eta oso ospetsua da nazioarteko lehiaketetan.

BIDEA EGINEZ

ezagutu beharreko ibilbideak

32

ibilbideak zailtasunaren eta iraupenaren arabera antolatu ditugu, zuen aldarte eta gaitasunari hobekien egokitzen zaizkienak aukera ditzazuen.

Ibilbide Luzeak (GR), Ibilbide Txikiak (PR), Donejakueko Bidea, eta Ignaziotar Bidea daude. Bide berdeak, antzinako trenbideak eta txango txikiak egiteko interes puntuak markatu ditugu baita ere.

Prestatu motxila, zapatilak edo botak, hamaiketakoa, eta aurrera!

33

Mapa honetan **ibilbide bakoitzaren trazadura** eta txango txikientzako **interes puntuak** markatuta daude.

Edozein ibilbide egiten hasi aurretik, helmugara iristeko eta bidean ezer ez galtzeko informazio guztia bildu behar duzue.

- ● ● ● Donejakue Bidea
- ▬▬▬▬▬▬ Burdin Mendietako bide berdeak
- ▬▬▬▬▬▬ Arrazolako bide berdea
- ▬▬▬▬▬▬ Atxuriko bide berdea
- ▬▬▬▬▬▬ Itsaslurreko pasealekuko bide berdea
- ▬▬▬▬▬▬ Orkonerako bide berdea
- ▬▬▬▬▬▬ Cadaguako bide berdea

BIZKAIKO GR-AK

- ▬ GR 12 Euskal Herriko bidexka
- ▬ GR 38/GR 38-1/GR 38-2 Ardoaren eta arrainaren bidea
- ▬ GR 38-3 Lea Ibilbidea
- ▬ GR 123 Bizkaiko bira
- ▬ GR 228 Bilboko eraztun berdea
- ▬ GR 229 Mikeldi-Durangeldea
- ▬ GR 280 Uribe
- ▬ GR 282 Artzaintzaren bidexka

BIZKAIKO PR-AK

- 1 PR-BI 160: txakolinaren gerizpetan oinez
- 2 PR-BI 167: Golakoko bidexka
- 3 PR-BI 181: estuarioaren bihotzetik
- 4 PR-BI 176: begirada bat iragan megalitikoari
- 5 PR-BI 165: ibilbidea itsasorantz
- 6 PR-BI 52: Otxandioko pagadiak
- 7 Nerbioiren jauziaren begiratokiak

IBILBIDEAK

- 1 Balgerri mendia
- 2 Burdinolen ibilbidea
- 3 Koltza mendia
- 4 Artea ezagutuz
- 5 Atxulo Altagortatik
- 6 Areatza hiribildua
- 7 Urko bidea

- 8 Artibairen ibilbidea
- 9 Ispaster - Otoio - Lekeitio
- 10 Nerbioiren jauzia (Untza)
- 11 Txarlazo bidexka
- 12 Birding-a
- 13 Ibarruri - Unda - Maume
- 14 Busturiako Errege Bidea
- 15 Illuntzar
- 16 Goitioztza ibilbidea (Lezama)
- 17 Bazaldu ibilbidea (Laukiz)
- 18 Itsaslabarren ibilbidea (Sopela-Barrika-Plentzia)
- 19 Iurretako iparraldeko eta hegoaldeko ibilbideak
- 20 Zaldi Gorri zaldi ibilbidea
- 21 Durangotik Urkiolara

GR

IBILBIDE HANDIAK

etapetan gozatu



GR 38
GR 38-1
GR 38-2



ARDOAREN ETA
ARRAINAREN
BIDEA
7 etapa,
167 km

Antzina mandazainek erabiltzen zuten eta Oiongo mahastietatik Bermeo, Lekeitio eta Ondarroako portuetaraino iristen da.



GR 38-1



GR 38-2

GR 38-3
LEA IBILBIDEA

Lea ibaia motza baina zakarra da. Ibilbide honetan, urarekin batera, historiaz betetako paraje ezkuuak ezagutzeko aukera izango duzu.

PR

IBILBIDE TXIKIAK

aurkikuntza handiak



PR-BI 176



IRAGAN
MEGALITIKOA
8,3 Km

Katillotxuko mendikatean 5 trikuharriz osatutako multzo megalitiko dago.



PR-BI 167



GOLAKOKO
BIDEKKA
4,93 Km

Ibaiertzeko basoa, haritzak, eta kultura balio handiko baliabideak Golako ibaiaren ertzean.



GR 229



MIKELDI-
DURANGALDEA
5 etapa
93,21 km

Durangaldea ezagutu eta Urkiola Parke Naturala ezagutzeko modurik onena da.



GR 123



BIZKAIKO
BIRA
19 etapa
408 km

Bizkaiko Lurralde Historikoko periferia osatzen duen ibilbidea da.



GR 280



URIBE
7 etapa
137 km

Eskualdeko 24 udalerrietatik igaro eta ondare aberatsa ezagutu ahal da.



PR-BI 160



TXAKOLINAREN
GERIZPETAN
7,43 Km

Txakolinaren mahats parretatik igarotzen den ibilbide erakargarria da, eta Sukarrietan itsasora gerturatzen da.



PR-BI 165



IBILBIDEA
ITSASORANTZ
6,47 Km

Oinez ibili Artaditik eta gozatu Ogoñoko haitzetik ikusten den paisaia ederraz.



GR 12



EUSKAL HERRIKO
BIDEKKA
19 etapa
187,67 km

Euskaditik eta Nafarroatik igarotzen da, nagusiki mendi inguruetatik.



GR 228



BILBOKO ERAZTUN
BERDEA
3 etapa
42,11 km

Bilbao inguratzen duten auzoetatik eta hurbileko mendi batzuetatik pasatzen da.



GR 282



ARTZAINZAREN
BIDEKKA
19 etapa eta
464,98 km

Ezagutu itzazu basoak eta tokiko fauna, besteak beste ardi latxak eta pottokak.



PR-BI 181



ESTUARIOAREN
BIHOTZEAN
ZEHAR
12,43 Km

Bidaia Gernikako historiatik. Gozatu paisaia ederraz Kosnoagako gailurretik.



PR-BI 52



OTXANDIOKO
PAGADIAK
6,37 km

Maldarik gabeko ibilbidea Otxandio ingurutik. Pagadiak, galtzadak, errekaak eta ondare aberatsa.



DONEJAKUE BIDEA

iparraldeko bidetik



Ezagutu Markina-Xemein, Gernika-Lumo, Bilbo, Portugalete, Balmaseda eta Cobarón ondare hiribilduak.

Beste ibilbide bat Bilbon hasten da eta Alonsotegitik, Sodupetik Gueñestik, Zallatik eta Balmasedatik igarotzen da.



IBILBIDEAK ETA PASEOAK

hamaiketako ederra
motxilan

Bilbao Bizkaiak hainbat harribitxi natural eskaintzen dizkizu, adibidez Gorbeia, Urkiola edo Armañongo parke naturalak, Pozalaguako kobazu-loak edo Nerbioiren iturburua, bere begiratoki zoragarriarekin. Nahitaez ezagutu beharreko lekuak dira, bai-na, oinez, bizikletan eta zaldi gainean egin ditzakezun ibilbide errazagoak proposatu nahi dizkizugu baita ere, familia osoarekin gozatu ahal izateko.

ENKARTERRI

Industria eta meatzaritza iraganeko eskualde honetan hasiko gara, eta **Burdinolen ibilbideetatik (2) txangoa egitea proposatzen dizugu** Barbadun ibai ondotik. Galdamesen hasi eta La Arena hondartzan bukatuko dugu. Valdiviako errota eta La Ollako eta El Pobaleko burdinolak ikusiko ditugu; azken hori bisitatzeko aukera dago eta banbuz osatutako baso bitxia du baita ere.

Hegoalderago, Ordunteko mendize-rran, Burgosko Mena bailararen eta Karrantzaren artean, **Balgerri mendia dago, (1)** 1.000 metro baino gehiagoko garaiera duena. Ordunteko urtegitik harizti eta pagadiz osatutako basoak deskubritu ahalko dituzue.

Balmasedatik gertuago **Kolitz (3)** mendiaren gailur enblematikoa dago; goian San Sebastian eta San Rokeren ermita erromanikoa dago, eta bertatik, ikuspegi panoramiko ederra ikusiko duzue.



GORBEIA ETA URDUÑA

Gero Urduña herrira joango gara eta hortik **Nerbioi ibaiaren iturburuko ur jauzi zoragarria ikusiko dugu (10).**

Txarlazoko (11) xendazaletasun ibilbide ezaguna eginez Antiguako Ama Birjinaren gailurrera iritsiko zarete eta bertatik bailarako ia-ia leku guztiak ikusiko dituzue. Hegaztiak maite dituztenek **ibilbide honetan hainbat espezie ikusteko aukera izango dute, (12)** besteak beste belatz handia, sai zuria edo sai arrea.



Artean (4) ibilbide lasai bat egin dezakegu eta bertako auzoak ezagutuko ditugu, ermita zaharrekin eta baserriz inguratutako zelaiekin. Artearen eta **Areatzaren artean hiru kilometro eskas daude (6).** Udalerri zoragarri horretan monumentu multzo deklaratu zuten herrigunea ezagutuko dugu, eta bertako jauregi eta etxe barrokoek iraganera eramango gaituzte.

Arratiako bailaratik Bikotzgane portua zeharkatuz **Orozkoko** haranera iritsiko gara, eta Altzagortan hasten den ibilbide paregabea egitea proposatzen dizugu bertan.

Ibilbide horretan, Atxulora joateaz gain (Itzinara sartzeko ateetako bat), gertutik ezagutu ahal izango

dugu basoak Gorbeiako paisaian duen garrantzia, eta pagadi txikiak eta koniferoen sailak zeharkatuko ditugu.

DURANGALDEA

Durangotik **Urkiolako parke naturalera (21)** joango gara, ezinbesteko mendi ibilbidea da eta askotariko fauna eta Anboto mendi ospetsuaren gailurra ikusiko ditugu. Bide batez, bisitatu Urkiolako San Antonio monasterioa eta bere ingurua. Kanpoko harriaren inguruan bueltak eman ditzakezu, eta kondairak dioen bezala, bikotekiderik ez dutenek bikotea aurkitzen dute horrela.



Iurreta ondare intereseko herria da, eta horrez gain, bi ibilbide eskaintzen ditu, antzina mandazainek edo merkatariek igarotzen zituzten bidexka eta pistetatik. **Iparraldeko eta hegoaldeko ibilbideak dira (19),** eta biek ere aldagai motzak dituzte.

Zaldi gainean egiteko **ibilbidea proposatzen dizuegu ondoren: Zaldi Gorri (20).** Haran inguruko ibilbide zirkularra da, Ibaizabal ibaiaren bi ertzetatik igarotzen dena. 90 kilometro ditu, Amorebieta-Etxanon hasten da eta 12 udalerritatik igarotzen da.

Ibarruri-Unda-Maume (13) Muxika osatzen duten hiru elizate zahar dira. Ibilbide horretan ermita gotikoak edo Erdi Arokoak, baserri zaharrak eta Oleako burdinola zaharreko hondarrak daude.

LEA-ARTIBAI

Proposamen hau Markina-Xemeingo Arretxinagako San Migel ermitan hasten da. Urko ibaiaren ondotik doan **oinezkoen bidetik (7)** zona horretako ondare natural eta kulturala ezagutuko dugu.

Itsasora hurbildu eta **Artibai (8)** ibaiaren ibilbidea egingo dugu, Gardotzako industrialdetik Ondarroako Artibai ibaiaren bokaleko padureta-raino.

Beste ibilbide interesgarri bat **Lekeitio** arrantza herrian bukatzen den bide zirkularra da; **Otoio** menditik eta **Ispastertik pasatzen da (9).**



Lea Ibilbidea interes handikoa da, Lea ibai ondotik igarotzen da eta berak izendatzen du ibilbidea.

Deskubritzeko gauza interesgarri asko daude, adibidez Mendexako itsasaldien Marierrota; 1555ean eraiki zuten lehorte garaietan ibai errotak ordezka zitzan, edo Gizaburuagan Bengoleako burdinola garrantzitsua edo bailararen bilakaeran ezinbestekoa izan zen pertsonai horren dorretxea. Munitibarren, XIV. mendetik Bizkaian dokumentatu den burdinola antzinakoena duen Bengola orubea, Energia Berriztagarrien eta Lea bailararen Interpretazio Zentro bilakatu da.

URDAIBAI

Errege Bidea(14) proposatzen dizuegu; Bermeo eta Gernika lotzen dituen bidea da eta mendeetan

zehar erromesak, merkatariak eta bestelakoak bertatik igaro ziren, baita ere Gaztelako Erregeak, Foruetan zin egiteko eta horrela Bizkaiko Jaun izendatuak izateko, Bermeoko Santa Eufemi Zinpeko elizara bidean.



Nabarnizko herri txikitik txango bat egin dezakegu **Illuntzar mendira igotzeko (15)** (726 metro), Urdaibai eta Kantauri Itsasoa ikusteko gailur zoragarrietako bat.

URIBE

Lezaman hasten da **Goitioltzako (16)** bidea eta oinez edo bizikletan egin daiteke. Txakolin mahastietatik eta baserri zaharretatik igarotzen da, adibidez, Oxangoiti baserritik. Bilboko Athletic Clubak entrenatzeko erabiltzen dituen zelai ospetsuak ere ikusiko dituzu.

Bazalduko ibilbide zirkularra (17) Laukizen hasi eta bukatzen da, eta zati batzuetan Gatikatik igarotzen da. Zuhaitzez betetako zelaia da, eta trazaduraren zati batean Butroi ibaiaren ondotik igarotzen da.



Berriz ere Kantauri itsasoan gaude **Sopela, Barrika eta Plentzia igarotzen duten itsaslabarretan bidexka egiteko (18).** Sopelako Barinatxe hondartzan hasi eta itsaslabarrekiko paraleloa den ibilbide batetik, Atxabiribil eta Meñakoz hondartzak inguratuko ditugu. Lehendabizi Barrikara iritsiko gara eta ondoren Plentziara.

BIDE BERDEAK

Kolitza, paisaia gurpil gainean



ARRAZOLA

Bide hori Anbotoko gailur mitologikoaren oinetan dago eta Atxondoko bailara ederra zeharkatzen du, eta bertatik jaisten zen antzinako Arrazolako meatzaritza trena buruan "Aurrera" baporezko lokomotora zuela eta Arrazola ibaiaren albotik Apatamonasterioko herriguneraino iristen zen.

ATXURI

Mungiako eskualdean merkataritza goitik behera aldatu zuen "Chocolatera" trenaren aztarna gaur egun Butroi ibaiaren bailarara irekita dagoen paseo atsegina da.

BURDINAZKO MENDIAK

Modu batean gure historiaren erraiak ezagutzeko ibilbidea da; burdina erauzi zuten mendeetan zehar, eta horri esker sortu zen XXI. mendeko Bilbao Handia kosmopolita.

ITSASLUR

Izugarria da, Bizkaiko mendebalderen dagoen kostaldeko itsaslabarretan zintzilikatuta baitago. Cobaronetik Campomarrera zihoan trenbide zaharraren trazadura itsaso ondoko pasealeku altua da gaur egun, eta aire libreko ibilbide didaktikoa izateaz gain, Kantauri kostaldeko ikuspegi ederrak ditu.

ORKONERA

Orkonera antzinako meatzaritza trenbidea bidegorri zoragarria da gaur egun, eta Trianonko mendi hegalek zeharkatzen ditu atlantiar landareen artetik. Hainbat tunel ditu baita ere, eta Somorrostroko bailarako bista zoragarriak ditu.

KADAGUA

Bide berde hori Balmaseda eta Irauregiko La Robla hustutako trenbide zatitik igarotzen da eta Cadagua ibai ondoko paseo ederra da.



XARMAZ BETETAKO LEKUAK

ikusi beharrekoak

Noski, horiek ez dira Bizkaian aurkituko dituzun xarma bereziko leku bakarrak, baina, originaltasunarengatik, bistengatik edo inguruarengatik txoko bereziz betetako lurraldeaz gozatzeko aukera emango dizuten tokiak dira.

NERBIOIREN JAUZIA

222 metroko jauzia du eta Iberiar penintsulako garaiena da.

Araba eta Burgos arteko mugan jaiotzen da, bailarara erortzen da eta Urduñatik Bizkaia iristen da. Merezki du neguan edo urtzaldi garaian ezagutzeak, ur emari handieneko garaiak direlako.



FORUKO ERROMATAR HERRIXKA (Forua)

Elexaldeko mendixkan kokatuta dago eta Bizkaiaren erromatar monumentu nagusia da. Analisi arkeologikoetan ondorioztatu dute 15 hektarea inguruko herrixka bat zegoela, eta hesi edo horma batez mugatu dute.



SANTA KATALINA BASELIZA (Mundaka)

Itsaso ondoko kokapena ikusgarria da, eta ez bakarrik bistengatik, baizik eta puntu estrategikoa delako estuarioko sarrera zaintzeko eta Izaroko irla edo Ogoñoiko haitza ikusteko.



ARMAÑONGO PARKE NATURELEKO BEGIRATOKIA

Pozalaguako kobazuloak munduko estalaktika eszentrikoen kopuru handiena du, eta sarrera ondoan Karrantzako haraneko bista ederrak dituen begiratokia dago; aberastasun ekologiko handia duen paisaia karstikoa ikus daiteke bertatik.



EREÑOZARKO SAN MIGEL (Ereño)

Urdaibaiko Biosferaren Erreserba liluragarria ikusteko talaia naturaletako bat da.

ARRIETA

Paisaia ezin hobean kokatuta dago, zelai berde handiekin eta mendi gune zabalekin, eta udalerrri inguruan ermita asko daude. Libaoko herrigunea azpimarratu behar da, San Martingo eliza neoklasiko elegantearekin eta Kristo Santuaren gurutzeriarekin.



ZUGAZTIETA (Trapagaran)


Bizkaian zutik irauten duten meatzaritza herri gutxienetako bat da. Monumentu multzo deklaratu zuten 2003an.

Meatze zahar batzuk gaur egun urmael artifiziala dira, eta paisaia txundigarri eta errepikaezina sortzen dute.



ITZINAKO BIOTOPOA (Gorbeia Parke Naturala)

Gorbeia Parke Naturelean dagoen kareharrizko mendigunea ezin hobeto ikusten da Orozkotik, zehazki, Elezkingo atseden eremutik.



LARRABETZU

Monumentu multzo izendatu zuten gaur egun oraindik ikusgarria den Erdi Aroko egiturengatik. Donejakue Bidea eta Bizkaiko Jaunen Zinpeko ibilbidea daude, mendeetan zehar nortasuna eman diotenak.



LENDOÑOBEITIKO ERROTA (Lendoño behekoa)

Etorri berritutako errota hau ikustera eta ezagutu bere eta Ruzabalgo gainerako herrixken 500 urte baino gehiagoko historia. Iturrigorri iturrian jaiotzen diren urek elikatzen dute.

BOLUNBURUKO (ZALLA) MONUMENTU MULTZOA

Monumentu multzo hori Bilbao Bizkaiko monumentu multzo hobereenetakoa da eta dorretxe bat, Santa Anako baseliza ederra (1610. urtekoa), burdinolako hondarrak eta errota eta eguzkiaz gozatzeko edo kirola egiteko lursail zabalak ditu.

Hortik hurbil dago Bolunburuko Kastroa, Bigarren Burdin Aroko herri gotortua, 320 metroko altitudetan dagoen muino txiki batean kokatuta eta Cadagua ibaiak babestuta.



SALDROPOKO HEZEGUNEA (Zeanuri)

Atxuriko haitzen oinetan dago. Lautada polit horrek ekosistema oso berezi bat osatzen du, landare bitxiekin eta balio ekologiko handia duen urari lotutako espezieekin.



Saldropo

AMOROTOKO PLAZA

Multzo arkitektoniko horretatik nabarmentzekoak dira eliza, plazari begira dagoen balkoi ederreko Errenazimenduko udaletxea eta Abadetxea baserria, XIX. mendeko estilo neoklasikoko eraikina.



Amoroto



Presazelaiko pagadia

PRESAZELAIKO PAGADIA (Otxandio)

Urkiola ibaiaren ertzetako pagadia magikoa eta misteriotsua bihurtzen da udazkenean, kolore gorriak hosto geruza estaltzen duenean.

Atsedean hartzeko eta familiarekin naturaz gozatzeko lekua da.



Ispaster

ISPASTERKO BASERRIAK

Bizkarrean itsasoko brisa sentiarazten dizun udalerrri honek euskal agertoki ederra osatzen du, eta paisaia berdean gailentzen dira baserri tradizionalak eta soroak.

BESAIDE (Elorrio)

Euskadiko leku enblematikoa da, bertan batzen direlako hiru euskal probintzia.

Gainera, gailurrean Yoshin Ogata japoniarraren eskultura zoragarria eta Pueyo arkitektoak desagertutako mendizaleei egindako monumentua zain dituzu.



Besaide

TXAULAK (Artzainen bordak)

Bizkaian igo beharreko gailurretako bat Tologorri da. Ganadua gordetzeko bordak ikusiko dituzu eta argazki ikusgarriak aterako dituzu.



Santa Eufemia

SANTA EUFEMIA (Aulesti)

Ermita hori Urregarai mendiaren gailur harritsuaren gainean dago. Urki eta altzifre arteko bide eder batetik gailurraren oinarriraino iritsiko zara, eta hortik harrizko 222 mailako eskailera igo beharko duzu ermita dagoen terrazara iristeko.



Tologorri

DURANGALDEKO BALKOIA (Garai)

Herri txiki hau Oiz mendiaren magalean kokatuta dago eta Durangaldeko balkoia da. Bertatik eskualdeko paisaia edertasuna ikus daiteke.



Garai

ARMINTZAKO BEGIRATOKIA


Lemoizko kostaldeko auzo horretan "bakarrik" egongo zara Kantauri itsasoarekin, bere bikaintasun eta brisarekin itxaroten zaituena. Goza ezazu itsas inguru honetaz.



Armintzamendi

HIRU GURUTZEEN BEGIRATOKIA (Abadiño/Urkiola)

Urkiolako San Antonioren santutegiaren ondoan hasten da begiratokira doan bidea. Pagadi arteko via crucis bat da eta bukaeran hiru gurutze dituen begiratokia dago. Panoramika izugarria du Atxarteko haitzarte gainean eta Durangaldeko zona osoan. Bertan interpretazio panel bat dago eta inguruko mendiak identifikatzen lagunduko dizu.



Hiru gurutzeak

MUSEOAK ETA INTERPRETAZIO ZENTROAK

Hemen dago
gordeta gure
izateko modua

46

Museo zentro garrantzitsu gehienak Bilbon dauden arren, landa gunean hainbat museo eta interpretazio zentro interesgarri daude baita ere.

Museo etnografikoak edo historikoak dira, adibidez, Gernikako Bakearen museoa, industria iraganeko Balmasedako La Encartada txapel fabrika edo itsasoarekin lotutakoak, adibidez Bermeoko Arrantzaleena edo Bakioko Txakolingunea. Guztiek batera museo sare bat osatzen dute eta horiei esker, pixka bat hobeto ezagutuko duzu euskaldunon historia eta izateko modua.



Loizaga dorrea



Txakolingunea

BILBAO
BIZKAIA

47




Santa Katalina itsasargia



Ekoetxea Urdaibai

EKITALDIAK

Landa gunean
jaiak direnean



M aite dugu une horiek bizitzea eta gero kontatzea. Jai herrikoi asko santu patroien omenezkoak dira eta herritarrek horien bedeinkapena eskatzen dute otoitz eginez, eta musika, herri kirolak eta tradizioak nagusi dira.

Disfrutatzeakoak dira baita ere Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokak, azoka gastronomikoak eta artisautza azokak, eta tokiko eta KM 0 produktuak aurkituko dituzue guztietan.

Itsasoari lotutako hainbat ohitura ospatzen dira baita ere, eta giroa berezia izaten da, adibidez, estropadetan.

Zuen bidaia-agenda ekitaldi horiekin bateratzen baduzue, bidaiez gozatzea eragiten diguten ekitaldiez gozatuko duzue.

DATA	EKITALDIA	NON
Urtarrilak 18	San Antontxuko nekazaritza-, artisau- eta abeltzain-azoka	Mungia, Uribe
Otsailak 3	San Blas azoka	Abadiño, Durangaldea
Otsailak 4	Santa Ageda bezpera	Hainbat herri
Otsaila	Jai Alai Winter Series finala (zesta-punta)	Gernika-Lumo, Urdaibai
Otsaila-martxoa	Mundakako Aratusteak	Mundaka, Urdaibai
Ostegun eta Ostiral Santua	Pasio biziduna	Balmaseda, Enkarterri
Apirila	Txakomic - Txakolin eta Komiki Jaialdia	Bakio/Leioa, Uribe
Apirila	Txakolinaren Eguna	Larrabetzu, Uribe
Maiatza	Umore azoka	Leioa, Uribe
Maiatza	San Isidro azoka	Zeanuri, Gorbeia
Maiatzak 8	Otxomaioak	Orduña, Gorbeia
Maiatzeko 2. larunbata	Baserrien eta haragiaren eguna	Markina Xemein, Lea-Artibai
Maiatzeko 3. larunbata	Antxoia Eguna	Ondarroa, Lea-Artibai
Maiatzeko 3. asteburua	Arrain Azoka	Bermeo, Urdaibai
Maiatza-ekaina	Enkarterri Fest	Zalla, Enkarterri
Ekaina	Txakolina Fest	Portugalete, itsasadarraren ertzetan
Eakainak 13	San Antonio Paduakoaren erromeria	Abadiño, Durangaldea
Ekaineko azken larunbata	"Zapato Azule"	Ondarroa, Lea-Artibai
Uztaila	Piperraren Eguna	Gernika-Lumo, Urdaibai
Uztaila	Dastatuarte: Food & Art Festival	Gorliz, Uribe
Uztaila	Musikaire	Elorrio, Durangaldea
Uztailak 10	Sardina eguna	Santurtzi, itsasadarraren ertzetan
Uztailak 22	Madalen eguna	Bermeo-Elantxobe-Mundaka, Urdaibai

DATA	EKITALDIA	NON
Abuztua	Gernika Jai Alaiako Grand Slam finala (zesta-punta)	Gernika-Lumo, Urdaibai
Abuztuak 10	San Lorentzoko azoka	Getxo, itsasadarraren ertzetan
Abuztuko bigarren asteburua	Pozalaguako jaialdia	Karrantza, Enkarterri
Abuztua-iraila	Urdufolk (Folk musika jaialdia)	Urduña, Gorbeia
Iraila	Sopela Kosta Fest	Sopela, Uribe
Iraila	Urdaibaiko Esentziak Mahasietan	Urdaibai
Iraila	Santa Eufemia Azoka	Bermeo, Urdaibai
Iraila	Artzain Eguna	Atxondo, Durangaldea
Irailak 5	"Antzar eguna" San Antolinak	Lekeitio, Lea-Artibai
Irailak 29	Arretxinagako San Migel Eguna	Markina Xemein, Lea-Artibai
Iraila-urria	Gorbeia Altzorrak	Gorbeia
Urria	Mahats-bilketaren Jaia	Balmaseda, Enkarterri
Urriko lehen astelehena	Gangas eguna (baserriko produktuak)	Zalla, Enkarterri
Urriko lehen astelehena	Urriko lehen asteleheneko azoka - Ganadu-azoka	Gernika-Lumo, Urdaibai
Urriko lehen asteburua	Kantauri Fest	Zierbena, Enkarterri
Urriko bigarren larunbata	"Urriko azoka nagusia" - Nekazaritza eta abeltzaintza-azoka	Markina Xemein, Lea-Artibai
Urriko azken astelehena	Urriko azken asteleheneko azoka - Nekazaritza-azoka	Gernika-Lumo, Urdaibai
Azaroak 1	Gazta Eguna	Turtzioz, Enkarterri
Abenduak 13	Durango Euskal Liburu eta Disko Azoka	Durango, Durangaldea
Abenduak 21	Santa Luzia Azoka	Orozko, Gorbeia
Abenduak 24	San Tomas	Bilbo
Abenduak 24	Ogi Eguna	Galdames, Enkarterri
Abenduak 24	Olentzero	Hainbat herri

GIDATZEN UTZIEZU

Ezagutu Bilbao
Bizkaia hobekien
ezagutzen
dutenekin

**TURISMO GIDARIEN
ELKARTEA**



**EZAGUTU GURE
BULEGO-SAREA**
INFORMA ZAITEZ
ANTOLATZEN DITUZTEN BISITA
GIDATUEI BURUZ



Lekuak, udalerrriak eta monumentuak ezagutzeko modu egoki bat bisita gidatu batean izena ematea da. Enpresa eta erakunde hauek horrelakoak antolatzen dituzte.

Jarri beraiekin kontaktuan eta programatu zure bisita.

PARKE NATURAL bat zure motxilan

Egia esan, hiru daude, guztiak ere edertasun eta berezitasun izugarrikoak. Urkiolako Parke Naturala, Gorbeikoa eta Armañongoa dira. Zoragarriak.



Txapelketak HERRI KIROLAK

Errekor berri bat hausteko harri-jasotzaileak, aizkolariak, segalariak, sokatira...modalitate guztiak gustatuko zaizkizu.



EAE-ko BIOSFERA- ERRESERBA bakarra

Urdaibaiko padura ikusgarriak leku ezin hobea dira *birdwatching*erako, bai eta Laida eta Laga hondartza zoragarrietan bainatu eta kostaldeko ikuspegiez gozatzeko ere, natur behatoki harrigarrietatik.

Musika herrikoia SOINU PROPIOAREKIN

Txistuak, albokak, dultzainak, txalaparta, trikitixa... Kultura herrikoiairen parte diren eta abesti edo dantzekin lagunduta une bakar eta berezi batez gozarazten duten instrumentuak, nortasunez eta emozioz betetakoak.



GASTRONOMIA egungoa eta betikoa

Proba itzazu beti kontu handiz eta Km 0 produktuekin prestatzen dituzten jaki tradizionalak. Baina ez ahaztu pintxoen nanogastronomiaz edo askotan saritzen duten abangoardiako sukaldaritza zoragarriaz.



Hurbiletik ezagutu EUSKAL PILOTA

Joan pilotaleku batera eta gozatu esku-pilotaz, palaz edo zesta-puntaz. Entzun pilotarien arnasa pilotak frontisaren aurka talka egiten duen bitartean.



Goazen JAIETARA

Hemengo jendea ezagutzeko modurik onena horixe baita, lurralde osoan ospatzen diren jaietara joatea.



ARTISAUTZA Iraganetik ikasitakoa

Izan ere, baserriko eta sukaldeko zereginek artisautza eskola guztia sortu dute. Lan horiek ezagutu, egiten ikasi edo oroitzen gisa eraman ahalko dituzu.

Bisitatu MERKATU BAT

Gure sukaldaritzako errezeten produktuen freskotasuna bizitzea plazer hutsa da, eta are gehiago hemengo giroaz gozatzaren denean. Egiaztatu ezazu.



TXAKOLINA Oso geurea den ardoa

Bilbao Bizkaian eta Gipuzkoa eta Araba lurralde mugakideetan antzinatek egiten dute ardo bikain hau, eta gainera, mahastiek paisaia zoragarriak sortzen dituzte. Txakolina oso hotza dagoenean edan behar da, eta arrain on bat edo Idiazabal gazta jan daiteke aldi berean, adibidez.



BIDAIA JASANGARRIAGO ETA ARDURATSUAGO BATEN ALDE



10 BIZKAIKO LANDA-TURISMOAREN DEKALOGOA



1

Errespetatu gure ondarea

Esparru natural pribilegiatua izateaz gain, Bizkaian benetako esperientzia eskaintzen dizugu kulturari, milaka urteko tradizioei eta lurrari eta itsasoari lotutako xarma duten herriei dagokienez, eta gure Lurraldeak mendeetako ondare historikoa du.

Errespetatu leku historikoak, baita gure kultura, hizkuntza eta nortasuna ere.



2

Parte hartu tokiko jarduera eta ekimen jasangarrietan

Aztertu gure historia eta kultura tokiko ekitaldietan, aire zabaleko jardueretan eta baserrietako lanetan parte hartuz. Murgildu zaitez gure milaka urteko tradizioetan eta gozatu gure abegikortasunaz.

Pentsa ezazu etxean zaudela.



3

Gozatu gure gastronomiaz

Kontsumitu bertoko produktuak estilo guztietako taberna eta jatetxeetan. Parte hartu ekitaldi gastronomikoetan. Bisitatu kontserba-etxeak, merkatuak, gaztandegiak, upeltegiak eta sagardotegiak. Atera zaitez "txikiteoan" eta pintxoak jatera.

Dastatu gure ohitura gastronomikoak eta egin bat tokiko komunitateekin.



4

Errespetatu eta zaindu ingurumena

Zaindu zure ingurunea eta lagundu lekuak garbi eta txukun mantentzen. Errespetatu natura eta bizitza basatia distantzia egokitik begiratu. Hondakinak murriztu eta birziklatu, eta baliabide naturalak neurritz erabili.

Zure aztarna beti positiboa izan dadila.



5

Ezagutu baserri bat

Euskal baserria gure nortasunaren eta arkitektura tradizionalaren sinboloa da. Naturan leku ikusgarrietan kokatuta egoten dira eta ekonomia zirkularra, elikadura-subiranotasuna eta hurbileko produktuak bezalako balioak sustatzen dituzte.

Baserri bat zer den jakiteak belaunaldiz belaunaldi transmititutako bizimodu batean murgiltzea esan nahi du.

6

Sintonizatu tokiko bizitzarekin, eta errespetatu bizimodu hori

Errespetatu eta baloratu gure ohiturak. Euskarazko hitz batzuk ikasi eta animatu bertako jendearekin erabiltzera.

Tokiko komunitatea eta turismo- eta ostalaritza-sektorean lan egiten duten pertsona guztiak errespetuz tratatu.

9

Ohiko erosketaren alternatiba gisa, erosi tokiko produktuak

Turismo arduratsua garatzen lagundu tokiko artisautza eta euskal sinbologian oinarritutako produktuak erosiz.

Eraman Bizkaiaren zatitxo bat etxera.

7

Praktikatu enoturismoa. Ezagutu txakolina eta sagardoa

Txakolina eta sagardoa funtsezkoak dira gure kultura gastronomikoan, eta gure nortasunaren osagai garrantzitsuak dira. Deskubritu itzazu.

Ibili upategiak eta sagardotegiak dauden leku ikusgarrietan barrena. Mahasti artean paseatu; parte hartu bisita, jarduera, dastaketa eta otorduetan.

10

Erabili garraio publikoa eta motorizatu gabea

Egin ezazu garraio publikoaren aldeko apustua, karbono-aztarna murrizteko eta buxadura- eta aparkatze-arazoak saihesteko.

Aprobetxa ezazu Bizkaiko edertasun naturala oinez edo bizikletaz ibiltzeko, paraje ikusgarriak zeharkatzen dituzten bidezidor eta bide berdeen sare zabala erabiliz.

8

Planifikatu zure bidaia modu arduratsuan

Gurera bisitan etorri aurretik, informa zaitzez gure destinoari buruz eta ziurtatu leku ikonikoez gain esperientzia ez hain turistikoak sartzen dituzula.

Hartu ostatu landa-turismo, landa-apartamentu, landetxe eta landa-hoteletan, tokiko jendeak kudeatuta daudenak, zure esperientzia benetakoa eta hurbilekoa izan dadin.

INFORMAZIO PRAKTIKOA

BILBAO TURISMOA
www.bilbaoturismo.net
BIZKAIA TURISMOA
www.visitbiscay.eus
EUSKADI TURISMOA
www.turismo.euskadi.eus

TURISMO-BULEGOAK

BILBO

- BILBO TURISMOA
• Plaza Biribila 1, Terminus eraikina · 944 795 760
• Mazarredo zumarkalea 66 (Guggenheim Bilbaoren ondoan)
• Aireportua 944 031 444

BIZKAIA

- BAKIO
946 193 395 · www.bakio.eus
BALMASEDA - ENKARTUR
946 802 976 · www.visitenkarterri.com
BERMEO
946 179 154 · www.bizibermeo.eus
DURANGO
946 033 938 · www.turismodurango.net
ELORRIO
946 820 164 · www.elorrioturismo.eus
• GERNIKA-LUMO
946 255 892 · www.gernikainfo.eus
• GETXO
944 910 800 · www.gebo.eus/turismo
ITG - Informazio Turistikoko Gunea
Marxotik abendura · 615 756 290
• GORLIZ
946 774 348 · www.visitgorliz.eus
KARRANTZA-HARANA
946 806 928 · www.karrantza.org
LEKEITIO
946 844 017 · www.lekeitioturismo.eus
MUNDAKA
946 177 201 · www.mundakaturismo.com
ONDARROA
946 831 951 · www.ondarroa.eus
URDUÑA
945 384 384 · www.ordunaturismo.com
OROZKO
946 122 695 · www.gorbeiauskadi.com
PLENTZIA
946 774 199 · www.visitplentzia.com
PORTUGALETE
944 729 314 · www.portugalete.org

- SANTURTZI
944 839 494 · www.visitsanturtzi.eus
SESTAO
944 070 985 · www.sestao.eus
• SOPELA
944 065 519 · https://turismo.sopela.eus/
ZIERBENA (La Arena)
662 547 468 · www.zierbena.net
(urtaroaren arabera/aldizka irekitzen da)

GARRAIOA

AIREPORTUA
Bilbo-Loiu · 913 211 000 (AENA)
www.aena.es/es/bilbao.html
ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA
Bilbo-Portsmouth ferrya 902 108 147
www.brittany-ferries.es
TRENAK
RENFE. Abandoko Indalecio Prieto geltokia
Plaza Biribila 2
Bezeroei laguntzeko tel. ADIF 912 432 343
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE Bilbo 944 879 222
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE 912 320 320
www.renfe.com / www.adif.es
EUSKOTREN
Bezeroei laguntzeko tel. 944 333 333
www.euskotren.eus · 944 019 900
FEVE. La Concordia geltokia
Ballen kalea 2
AUTOBUSAK
Bilbao Intermodal (autobus-geltokia)
Gurtubai 1 · 944 395 077
• www.bilbaointermodal.eus
Bilbobus (udal-autobusak)
946 855 000/ 944 790 981
www.bilbao.net/bilbobus
Bizkaibus (autobusak, probintzia eta aireportua)
946 125 555 · www.bizkaia.eus

BILBOKO METROA
946 855 000 · www.metrobilbao.eus
TRANBIA
944 333 333 · www.euskotren.eus
TAXIAK
Radio Taxi Bilbao
944 448 888 · www.taxibilbao.com
Tele Taxi
944 102 121 · www.teletaxibilbao.com
Radio Taxi Nervión
944 269 026 · www.radiotaxinervion.com
Gebon:
BIZKAITAXI
www.bizkaitaxi.eus / 944 915 353
GETXOBIZI
www.nextbike.es / 900 293 551
BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA
Bilbaobizi
946 564 905 · www.bilbaobizi.bilbao.eus

OROKORRA

LARRIALDIAK 112
INFORMAZIO OROKORRA 010
(Bilbo udalerri barruko deietarako)
944 010 010 (Bilbo udalerri kanpoko deietarako)
KIDEGO KONTSULARRAREN BULEGOA
944 706 426
HERRITARREN ARRETA BILBOKO UDALA
944 204 200
ERREPIDEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA
011
GALDUTAKO GAUZAK
944 204 981 / 944 205 000

OSTATUAK

NEKATUR/LANDA-OSTATUAK
943 327 090 · www.nekatur.net
946 870 402 (lhobe) · www.ekoetxea.eus
HOTEL ENKARTUR
www.destinobilbao.com
XARMA, Euskal Herriko ostatu xarmagarrien elkarte
www.xarmahotels.com

BILBOKO MUSEOAK

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA
www.guggenheim-bilbao.eus · 944 359 000
ARTE EDERREN MUSEOA
www.bilbaomuseoa.eus · 944 396 060
ARTE SAKRATUAREN MUSEOA
www.bilbaomuseoa.eus · 944 320 125
ITSASMUSEUM BILBAO
www.itsasmuseum.eus · 946 085 500
ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA
www.museodepasosbilbao.com · 944 150 433
BILBOKO ZEZEN MUSEOA
www.bilbaomuseoa.eus · 944 448 698
MUSEO VASCO / EUSKAL MUSEOA
www.euskalmuseoa.eus · 944 155 423
BERREGINEN MUSEOA
www.bilbokoberreginenmuseoa.eus/es · 946 790 255
ATHLETIC CLUB MUSEOA
www.sanmames.athletic-club.eus/museo · 944 661 100
EUSKARAREN ETXEA
www.euskararenetxea.eus · 944 028 081
ARKEOLOGIA MUSEOA
www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 944 040 990

BIZKAIKO MUSEOAK

KOSTALDEAN
ARRANTZALEEN MUSEOA (Museo del Pescador)
Bermeo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 881 171
BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA
Plentzia · www.museoplentzia.org · 946 773 725
RIALIA INDUSTRIA-MUSEOA
Portugalete · www.portugalete.org/ES-ES/RIALIA · 944 729 200
SANTURTZI ITSAS MUSEOA
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494
AGURTZA ONTZI-MUSEOA
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494
BIZKAIA ZUBIA
Areeta (Getxo) /Portugalete
www.puente-colgante.com · 944 801 012
PUNTA BEGOÑA GALERIAK
Getxo · www.puntabegonagetxo.eus
URDAIBAI BIRD CENTER
Gautegiz-Arteaga · www.birdcenter.org · 699 839 202
EKOETXEA URDAIBAI
Busturia · www.ekoetxea.eus · 946 051 275
TXAKOLINGUEA - TXAKOLINAREN MUSEOA
Bakio · www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea · 946 028 513
SANTA KATALINA ITSASARGIA
Lekeitio · www.lekeitioturismo.eus/es · 946 844 017

BARRUALDEAN

SIMON BOLIVAR MUSEOA
Ziortza-Bolibar · www.simonbolivarmuseoa.com · 946 164 114
DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA
Durango · www.durangomuseoa.eus · 946 030 020
ENKARTERRIETAKO MUSEOA
Sopuerta · www.enkarterrimuseoa.eus · 946 504 488
EL POBALEKO BURDINOLA
Muskiz · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 629 271 516
EUSKAL HERRIA MUSEOA
Gernika-Lumo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 255 451
GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOKO FUNDATZIOA
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200
GERNIKAKO BATZAR ETXEA
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200
BASONDO
Urdaibaiko basafunaren aterpea (Kortezubi)
www.basondo.com · 946 254 436
MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA,
"JOSE LUIS GOTI"
Leioa · www.ehu.eus · 946 012 000
OROZKOKO MUSEOA
Orozko · www.orozkomuseoa.eus · 946 339 823
EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA
Gallarta · www.meatzaldea.eus · 946 363 682
BALMASEDAKO HISTORIAREN MUSEOA
Balmaseda · www.visitenkarterri.com · 946 802 976

LA ENCARTADA FABRIKA MUSEOA
Balmaseda · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 800 778
VALENTÍN DE BERRIOTXOA MUSEOA
Elorrio · www.visitelorrio.com · 946 820 164
LOIZAGA DORREA. ANTZINAKO AUTOEN ETA AUTO
KLASIKOEN MUSEOA
Galdames · www.torreloizaga.com · 672 248 759
BURDIN HESIAREN OROIMENAREN MUSEOA
Berango · www.cinturondehierro.eus · 946 682 143
ANTZASTI MUSEOA
Dima · www.antzasti.eus
628 322 275
MUSEO DE ORDUÑA / URDUÑA HIRIKO MUSEOA
Urduña · orduñahiria.org · 635 751 436
KARPIN FAUNA, BASAFAUNAREN
HARRERA-ZENTROA.
Karrantza · www.bbkarpinfauna.eus
946 107 066
HONTZA MUSEOA FUNDATZIOA.
Mañaria · www.hontzamuseoa.eus · 946 216 555
IZENADUBA BASOA
Euskal mitologia-parkea. Olentzeroren etxea
Mungia · Landetxo Goikoa baserria
www.izenaduba.com · 946 740 061
DOLOMITAS FABRIKA MUSEOA
Karrantza · www.visitenkarterri.com · 946 806 928
KONTZEJU ZAHARRA INTERPRETazio-ZENTROA
Markina Xemein · www.leaartibaiturismo.com/es/hacer/detalle/
kontzeju-zaharra · 618 595 593
MUÑATOIZKO GAZTELUA
Muskiz · www.visitenkarterri.com · 629 271 516
ANGURRETA HARROBIA ARTE ESPAZIOA
Mañaria · angurreta@gmail.com
NATURAGUNEAK
URDAIBAIKO BIOSFERAREN ERRESERBA
www.urdaibai.eus · Tel.: 944 032 360
946 870 402 (lhobe) · www.ekoetxea.eus
GORBEIAKO NATURA-PARKEA
946 122 695 · www.gorbeiauskadi.com
URKIOLAKO NATURA-PARKEA
946 814 155 · www.urkiola.net
ARMAÑONGO NATURA-PARKEA
946 560 079 · www.visitenkarterri.com
POZALAGUAKO KOBAZULOA
www.cuevadepozalagua.eus
SANTIMAMINEKO KOBAZULOA
www.bizkaia.eus/es/-/cueva-de-santimamine
OMAKO BASOA
www.bizkaia.eus/es/web/bosque-oma-basoa



Eskuliburu hau deskargatu



visitbiscay.eus



BILBAO
BIZKAIA
be basque

